

Noaia !!

www.noaia.com



Hasi da txotx garaia



Aurtengo Inauterietan,
zomorroak mozorro

Alkartasuna

Usurbilgo Baserritarren
Kooperatiba
Elkartea

Berogailuetarako gasoil zerbitzua prezio onenean



etxez etxeko **banaketa**

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan



Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba Elkartea • alkartasuna@usurbil.com • Ugarte Industrialdea 12. USURBIL • ☎ 943 361 114

Tapa eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2007 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2007ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



Albistea iruditan !!

Danbor hotsak Udarregin

Amaitu dira San Sebastianak, han eta hemen. 24 ordu irauten duen etengabeko jai horren aurretik, ordea, ikastetxe askok eskaintzen dituzte danborrada saioak. Udarregi ikastolan bai behintzat. Urteroko hitzorduari eutsiz, San Sebastian bezperatan, pasa den urtarrilaren 18an ikasleen danborrada saioa izan zen patioan. Arratsaldeko 15:30ak pasatxotan hasi zen emanaldia. Danbor joleak ikustera joan ziren guraso eta irakasleez bete zen ikastola aurrea. Haur Hezkuntzakoek ere haien emanaldia eskaini zuten. Batean zein bestean, eguraldia lagun izan zuten.



IKASLEAK GOGOTSU ARITU ZIREN DANBOR FESTAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

HAUR ESKOLAREN ETORKIZUNA _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

SAGARDOETXEA MUSEOA _____ **8. OR.**

INAUTERIAK, ATE JOKA _____ **10. OR.**

OKINDEGIETAKO KANPAINA _____ **12. OR.**

KzGUNEA, OTSAILEAN ARRATSALDEZ _____ **14. OR.**

2. ERREGIONAL MAILAKO TALDEA _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldea

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

Nora doaz galtzen diren galtzerdiak?

Ez da beldurrezko pelikula edota parapsikologiako telebista programarik ikusi behar; edozein etxeetan topatu ditzakegu misterio handienak. Adibidez: Zergatik biderkatzen dira gauetik goizera arraskako plater zikinak? Nondik ateratzen dira pasiloan oesteko hauts pelota horiek? Zer dela eta atzo ireki zenuen esnearen tetrabrika hartzen duzunean bi tanta bakarrik gertzen dira?

Niretzat, hala ere, misterio hauek guztien gainetik bat egon da: nora doaz galtzen diren galtzerdiak? Automatikoa da; labadora jartzen dudana bakoitzean BETI falta zait galtzerdi bat, BETI. Horregatik garbaldi bakoitzean Sherlock Holmesek baino tentu handiagoarekin aztertzen ditut pista guztiak:

1. Labadoraren atea mantso-mantso ireki, jantzi bakarrekin ere ihes egin ez dezan.

2. Toalla azpian jarri eta arroparen errekuentoa egin.
3. Burua labadoran sartu, ea ditxosozko galtzerdia izkin batean ezkutatu den ikusteko.
4. Jantziak zabaltzeko tokira joan atzeraka, bidean ea erortzen den ikusteko.
5. Erropa zabaldu.
6. Galtzerdi bat bakarrik dagoela konturatu. Joooooooooooo!

Oraingo honetan jakin behar nuen zer gertatzen den, bai horixe! Pausu guztiak berriro jarraitu nituen eta azkenean, CSikoek baino azterketa gehiago egin ondoren, argitu nuen misterioa. Tenderetean hatz-marka desberdinak ote zeuden ikertzen nabilela ikusi nuen; galdutako galtzerdia zen.

Desitxuratuta eta hilotz baten moduan zetzan, hanxe, beheko bizilagunaren patioan.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Otsailak 1. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 28.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

LATAILLADE ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra
687 858 390
climata_t@yahoo.es

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Haur Eskolaren etorkizuna argitzeko lehen bilera egin zen lehengo astean

Hezkuntza Mahaia osatzeko lehen urratsak ematen hasi dira. Oraindik forma ematen ari dira, zer nolako funtzionamendua izango duen hausnartzen. Bien bitartean, Hezkuntza Mahai horretan izango diren hainbat eragile bildu ziren lehengo astean, udalbatza pleno aretoan. Izan ere, heziketa alorrean bada premia handia duen gai bat, Haur Eskolaren etorkizuna.

Haur Eskolaren gaiari lehenetsua eman nahi zaio, iazko arazoak berriz errepika ez daitezzen.

Izan ere, hainbat polemika eta gero, iazko udan urtebetez luzatu zen udala eta Haur Eskola kudeatzen duen kooperatibaren arteko hitzarmena. Baina behin behineko konponbidea baino ez zen izan. Aurten, Haur Eskolaren etorkizuna definituta uztea litzateke helburu nagusia. Apirilerako konpondu nahi da gai hau. Hori da erronka.

Beraz, hasteko, irtenbidea eman nahi zaio Haur Eskolari. Hezkuntza Mahaia forma ematen zaion bitartean, gai hau zeinek kudeatuko duen aurreratzeko moduan gara. Josune Mujika udal



LEHENGO ASTEKO BILERAN, UDARREGI IKASTOLA, HAUR ESKOLA, IKASTOLAKO GURASOAK ETA UDAL ORDEZKARIAK BILDU ZIREN.

teknikariak kudeatuko ditu aurrerantzean hezkuntza arloko gaiak.

Urtarrilaren 17ko bileran, Udaregi ikastola eta Haur Eskolako arduradunek hartu zuten parte. Baita Ikastolako gurasoen ordezkariak ere. Hauekin guztiarekin batera, alkatea eta EAE-ANV zein Aralarreko udal ordezkariak. PSE-EEko zinegotzia kanpoan zen eta ezin zuela bertaratu jakinarazi zuen. EAkoak ere, idatziz adierazi zuten ezin-

go zutela bileran parte hartu baina datozen deialdietara azaltzeko asmoa azaldu zuten.

Hasieran esan bezala, Haur Eskolaren gaiak du lehenetsua baina denborarekin, hezkuntza arloko gaitzetzeko gaiak ere mahai honetan eztabaidatuko dira. Horretarako, heziketa arloan zeresana duten eragile denak biltzeko xedarekin abiatu da Hezkuntza Mahaia.

2008ko udal aurrekontua datorren asteako plenoan aztertuko da

Udalbatza plenoa hilabeteko azken asteartean bildu ohi da. Datorren astean, hilak 29, gai garrantzitsu bat izango da aztergaiaren artean: 2008ko udal aurrekontua. Beste behin ere, urtea hasita dagoenean bozkatuko da udal aurrekontua udalbatza plenoan.

Urtea hasi da eta udalak ez du 2008ko aurrekontua onartu oraindik. Azken urteotan ohikoa bilakatu den joera da (iaz ere, EA agintean zela gauza bera gertatu zen). Urtea hasi

orduko, udalak zein irizpide izango dituen zehaztuta izatea litzateke egokiera idealena. Baina beste behin ere, urtea hasita dagoenean bozkatuko da udal aurrekontua.

NOAUA!k jakin duenez, alderdien arteko hainbat bilera egin dira azken asteotan. Lehengo asteako Ogasun Batzordean ere, gai hau izan zuten hizpide.

Azken orduko arazorik ez balitz, datorren asteartean aurrera aterako litzateke udal aurrekontua, arratsaldeko 18:00etan hasiko den plenoan.

Urtarrilaren 30ean

Kultura Aholku Batzordea

Urtarrilaren 30ean Kultura Aholku Batzordea biduko da. Legealdi honetan biltzen den lehen aldia izango da. Arratsaldeko 19:00etan udaletxean hasiko den bilera herriko kultur talde denei irekita dago.

Babes ofizialeko etxeen zerrendak

Urtarrilaren 24an osteguna amaituko da babes ofizialeko etxebizitzaren zozketarako egin den zerrendari alegazioak aurkezteko epea.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Mielek burua altxako balu!!



Ze esango ote luke Aitzetako Mielek burua altxa eta bera bizitako etxe ingurua nola dagoen ikusiko balu!!

Izatez naparra bazen ere, Usurbilgo Aitzeta baserrian amaitu zuen bizitzen, baina ez guk orain ezagutzen dugun Aitzetan; aidanean A-8 autopista egiterakoan baserria pare-parean tokatzen eta bota egin omen zuten alboan beste bat eginez. Bertan egin zituen urte mordoa bere ardi, behi, zakur, zaldi eta gainontzeko animaliekin batera.

Nire amona Klaudiak kontatzen zuen nola zaldi gainean jaisten zen herrira, beste asko bezala, baina gauza kuriosoa egiten omen zuen; zaldiaren oinak ez behartzeagatik, bidez joan beharrean belazetako bidezidorretatik eramaten omen zuen aberea! Gozago ibiliko zen zalan-zarrik ez dut.

Ba, garai hartan berezko baserria autopistak harrapatu bazuen, gaur berriz beste zinturoi delako honek harrapatuko du haren ordezkoa. Tristura galanta ematen du horko inguruak nola dauden ikusteak; ez dago ez baso,



ez zuhaitz, ez meta, ez abere, ez ganadu ezta antzekorik ere. Dena lur-gorri dago orain eta hemendik gutxira hor-migoitzarrez josia egongo da.

Oroitzapenen kutxan gorde beharko ditugu orduko irudiak.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Promesak



Agur bero bat guztiei Usurbilgo txoko Ahonetatik! Urte berria hasi genuela egun batzuk igaro badira ere, urte berri on! Iada 2008. urtea hasia dugu eta konturatzerako, arrazoi ezberdinengatik sarri gogorregia suertatzen den urteko lehen hilabeteari agur esango diogu. Urte berriak, atzean utzitako urtean bete ez ditugun asmoak gogora ekartzen dizkigu... eta asmoak "kolore" guztietakoak izan ohi dira. Kirola egiten hastea, erretzeari uztea, ikasketetan gehiago saiatzea.... Hala ere, asmo edo promesa horiek geure buruari egitea erraza izan arren, ez da hain erraza suertatzen urtean zehar hauek mantentzea.

Ez da erraza ohiturak eta geure jokabidea aldatzea; esfortzu eta kontzientzia maila handia eskatzen dute. Hala ere, ez dezagun geure burua engaina... Promesak egitea erraza da, besteei promesak azaltzea are eta errazagoa... Baina bada ahazten zaigun gauzik ere... Benetan "nahi" izatea, aldaketarako nahia izatearena hain zuzen ere. Geure burua engainatzea eta urteak aurrera joan ahala atzean uzten goazen promesak egitea erraza da... Guk pentsatzen duguna eta sentitzen duguna bat egitea, beste gauza bat da ordea... Izan ere, horren ondorioz izango baikara gai, pausoak emateko.

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Aparkaleku faltan

Egunez hor nonbait, baina gaeuz film ezagun hark zioen bezala ezinezko "misioan" bihurtu ohi da Atxegalden ibilgailua aparkatuta, edo hobeto esanda, ondo aparkatuta uztea. Ibilgailuak espaloi gainetan ikustea, eguneroko kontuan bihurtu da. Etxe aurrean aparkatu nahi denok, baina aspalditik nahi izanda ere ezin. Etxebizitza bakoitzeko ibilgailuak ere ugaritzen doaz. Lehen auto bakarra zutenek orain bi dituzte, bi dituztenek hiru... Aparkaleku kopuruak ordea lehengoa izaten jarraitzen du.

Duela urte batzuetatik Alperro-Buru kalean, ikastolara igotzeko aldapa horretan dezente aparkalekua ere egokitu zuten. Hasieran ikaragarria zirudien. Ibilgailuak uzteko tokia soberan izango zelakoan, aldiz, gauetan bizi-lagunek ere ez dute non aparkatu. Hemen ere espaloiak oinezkoenak izateari utzi eta haien lekua ibilgailuek hartu dute. Gainera, bertan ez dago norbere aparkaleku plaza bereizten duen marrarik eta neurri batean, guneari ez zaio behar bezalako probetxua ateratzen. Ez da atzoko kontua, baina arazoa, ez da kale batekoa. Dirudienek, auzo osokoa.



AGINAGA

ENEKO HARREGUY

Zamatu ditugun gastuekin



Iragan berri ditugun datetan, are apainduago utzi ditugu gure etxeak. Teknologia berriak horniduraren zati handi baten jabe egin ditugu. Ez zaigu ezer falta. Jostailuak barra-barra, altzariak, kotxeak... eta erostea erosoena bada ere, ondoren, bakoitzak dakartzan gastuekin burrukan ibili behar izaten dugu. Aseguruak... eta alfonbra azpitik agertzen diren zerga guztiak.

Ez daukagu dirurik. Baina lagunartean afaltzen gaude-la ateratzen ditugu gaiok mahai gainera, denoi gustatuko litzaiguenek jakia bailitzan.

Ez daukaguna ere xahutu egiten dugu. Beti, erosi behararren beharraz; beharrezko ez zaizkigunak ere bai. Patrikan sosik gabe geratu arte, lasaitasunik ez bagenu antzera.

Eta horrela... horrela gabiltza. Lan-baldintzak. Nola hobetu. Nola lortu bizi-, ez bakarrik lan-, bizi-baldintza hobeak, gure burua "amen" esatera behartzen dugu-eta; edozertara makurtzera nagusiaren aurrean, baldin eta ordaintzeke dugun zerrenda kitatu nahi badugu.

Kontratatu gintuzteneko ordutegia baino gehiago



beharrean. Soldata, ordea, lehengoa; lehengoa ere, baxua zenean. Lan-baldintza exkaxetan asko eta asko. Eta asko eta asko joaten zaizkigunak, ondorioz.

Horiek horrela direla ere, nola jo grebara zamatu ditugun gastuekin burrukan ibili behar izaten dugu eta. XXI. mendeaz harro egoteko moduan gaude.

AGINAGA

AITOR HELETA

Auzoa ezagutzen



Jendeak hala eskatuta, Aginagako ludoteka Jeginero irekitzeko aukera martxan jarri da. Ikusirik ezinezkoa zitzagula pertsona bat kontratatzea bertan egoteko eta ludotekaren ardura hartzeko, bazkideztza sistemaren bidez herritarrok elkartzeko aukera dugu bertan.

Ludoteka adin ezberdinetako jokuz eta liburutegi txiki batez horniturik dago. Laster Interneteko konexioa duen ordenadore bat jarriko da. Norbaitek interesa edo zalantzarik badu, deitu telefono zenbaki honetara: 650 692 458 (Aingeru).

Bestalde, hemendik eskertu nahi dut gabonetako ekintzetan parte hartu zuten guztiei eta bereziki lagundu zutenei. Bi irteera antolatu ziren Aginaga inguruan. Lehenengoan erria ezagutzeko irteeran Inaxio Ikutzak eta Jose Antonio Pikabeak



haien alatan, inguruko bazterrak erakutsi zizkiguten. Bigarrenengoan Damaso Lizasok eta Jakoba Errekondok euren baserriak eta abereak pazientzia handiz erakutsi zizkiguten.

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Arkumeen begien dizdira

Asteartean etxeko lehiotik begira nengoela, animalia txuri borobil batzuk ikusi nituen. Denak handiak ziren, baina halako batean zer ikusi eta animalia txuri txiki bat. Ardi txiki bat zen bere amaren atzetik zihoana, isatsa txiki txikiarekin, alde batera eta bestera mugituz. Txuri-txuria zen eta alaitasun osoarekin zebilen saltoka amari amorrarazten, gu txikiak ginenean bezala. 10minutu beranduago beste aldera begiratu eta ezetz asmatu zer ikusi nuen? Beste arkume bat zen, baina oraingoan jaio berria. Bere zilborrestea zintzilik zuen eta ezin zuen altxa, erori egiten zen, baina oso polita zen, xamurtasuna ageri zitzaidan begietan.

Amona etorri zitzaidan eta nirekin jarri zen arkumeei begira. Oso polita da horrelako animaliak ikustea eta horregatik zaindu behar dugu lurra, zaindu bakarrik ez, ezin diegu beste inori nahi dutena egiten utzi gu denon lurrekin, eta gutxiago honelako ikuskizun politak debekatzeko. Galdera bat daukat, gu eta arkumetxoak edo animaliak orokorrean, ez al gara berdinak? Orduan zergatik ari gara gu gure buruari min ematen? Ez al gara konturatzen gu ere ardiak edo beste edozein animalia bezala garela? Ba orduan zaindu dezagun ingurumena, bizirik iraun nahi badugu.



Sagardoetxea, sagarraren kultura zabaltzen

Udazken hotzak, sagar gutxiago eta txikiagoak ekarri ditu, baina kalitate handiagokoak. Sagardo aromatikoa, fruitu freskoa eta gorputza duena. Halakoa omen da, aurten dasta daitekeen sagardo berria. Baina sagardogintzaz zenbat dakigu? Eskaintza interesgarri baten bidez galdera horri erantzuna aurki diezaiokegu; Astigarragako Sagardoetxera gerturata. Gogora dezagun, Usurbilen ere halako gune bat zabaltzeko asmoa egon zela. Artzabal eraikinean hain zuzen. Baina dakigun bezala, gaur egun, Zahar Etxe berria kokatuko da bertan.

Sagardoa garai batean, arrantzale askoren bizi iraupeneko bermea zen. Edariaren C bitaminak hiltzetik salbatzen zituen hilabeteetarako itsasora arrantzara irteten ziren langileak. Etxera itzultzean zur eta lur geratzen omen ziren haien esperoan ziren senitartekoak.

Arrantzarekin bakarrik ez, sagardoak txalapartarekin ere loturak aurkitu dituenik bada. Orain mende batzuk, baserrietan muztioa ekoizteko baliatzen zen dolareko egur puskak, txalaparta inprobisatu gisa erabiltzen zituzten ekoizleek. Zertarako? Bi asmorekin; txalaparta jotzen ari zenak inguruko baserritarrei deia darra egin nahi zien, etxera etorri eta egindako mosto goxoa dasta zezaten. Baina bada gaur egun musika tresna gisa erabiltzen dena, garai hartan mostoa egin asmoz, laguntza eskatzeko baliatzen zuenik ere. Beste kontu bat da, ia deialdi hark erantzunik izaten ote zuen.

Orditik sagardoaren ekoizpenak gora beherak izan ditu. Beheraldia, bereziki, 60. hamarkada aldean. Arrazoiak beti interpretagarriak diren arren, aditu batek baino gehiagok urte haietan ekoizpenean izandako beherakada edari berrien agerpenekin lotzen dute; Kas edota Coca-Cola marka eza-gunekin adibidez.



SAGARDOAREN EKOIZPEN PROZESUA NOLAKOA DEN EZAGUTZEKO AUKERA ESKAINTZEN DU ASTIGARRAGAN DEN MUSEO HONEK.

Sagardoaren kontsumoa, gora

Ekoizpenak eta kontsumoak azken hamarkadetan goranzko joera hartu du berriz ere. Txotx denboraldiak zerikusi handia izan du horretan. 70. hamarkada hasieran Donostiako elkarte gastronomietako kideak Astigarragako sagardo ekoizleengana joaten hasi ziren. Kupelaz kupela, zuten sagardoa probatzen zuten. Eta gustukoa zutena elkarreterara eramaten zuten. Gaur egun hain ezaguna egin den txotx denboraldiaren jatorria dugu.

Ikustetik dastatzera

Estatistikari lotutako bi datu; ingelesak omen dira sagardo gehien ekoizten dutenak. Kontsumitzaile finenak

berriz, irlandarrak. Ikusi bezala, asko dira sagardogintzak gordetzen dituen bitxikeriak eta istorioak. Horietako askoren berri izan dezakegu, Astigarragako Sagardoetxean. Urte osoan zabalik dagoen museoan, sagardo ekoizpenaren nondik norakoak ezagutzeko aukera dago, zelaian bertan landaketatik hasita. Eta gero, museo barruan jarraituta, erakusketa eta ikusentzunezkoen bidez. Ibilaldia, sagardo goxoa probatuz amaitzen da. Urtean zehar ere, sagardoaren ekoizpen prozesuari lotutako garaian garaiko erakustaldiak antolatzen dituzte, beste hainbat ekintza osagarrirekin batera.

ARITZ GORRITI

Bisita gidatuak egiteko aukera

Han dioten bezala, sagardotegi batera joan aurretik plan polita da lehenbizi Sagardoetxea eta ondoko sagasti ederrak ezagutzea. Ibilaldi gidatuak antolatzen dituzte bertan. 3,5 euroren truke bertako txokoak ezagutu daitezke. Doan 10 urtez azpikoentzat. Hauek, garaian garaiko ordutegiak:

Urriak 1-Apirilak 30

Asteartetik ostiralera: 15:00-19:30.
Larunbatetan: 11:00-13:30/16:00-

19:30. Igandetan: 11:00-13:30
Astelehenetan itxita.

Maiatzak 1-Irailak 30

Asteartetik larunbatera: 11:00-13:30/16:00-20:00. Igande eta astelehenetan itxita.

Taldeentzat beste ordutegiak.

SAGARDOETXEA
Kale Nagusia 48, Astigarraga
Telefona: 943 550 575.
www.sagardoetxea.com

Joxe Mari Alberro, Sagardoetxeako arduraduna

“Jendea oso interesatuta hurbiltzen da”

NOAUA! Zer nolako bisitari mugimendua izaten duzue urtean zehar?

Joxe Mari Alberro. 2006ko irailean ireki zen. Pasa den azarora arte, bana-ka 1.812 lagun etorri dira, ikastoletatik 1.501 eta taldeetan, 3.290. Denera, 6.603.

N. Gehienbat, nondik datoz?

J. M. A. Gehienak Euskal Herrikoak dira; 3.723 pasatxo (%70a gipuzkoarrak eta %20 Bizkaiatik). Espainiatik 2.042 eta Europatik 820.

N. Etortzen direnei, zerk pizten die arreta gehien?

J. M. A. Sagastiei ateratzen diegun etekinak. Bestalde, erabat ahaztuta zutena gogoratu edota jakin gabeko gauza askoren berri izaten dute. Jendea oso interesatua agertzen da. Eta dastaketan denak oso gustura. Horretarako ere tartea hartzen dugu; nola dastatu, usaindu, koloreak ikusi edota sagar produktu ezberdinak eza-gutzeko. Bide horretan guztian, sagarren kultura sartu nahi dugu.

N. Partzuergo batek kudeatzen du museoa. Gunea martxan jarrita, bilgune horren erronketako bat bete da. Baina zer du egiteke?

J. M. A. Ondareari lotutako dokumentazio zentroarekin jarraitzen dugu, hori gure eguneroko lana da. Bertan, kultur taldeek parte hartzen dute. Aurten, Erbitegi-Etxeberriko toleara sagastian jarri nahi dugu. Elementu interesgarria iruditzen zaigu.

XIX. mende bukaeran, sagardo mundua beste modu batekoa baitzen. Eta hori zabaldu nahi dugu.

N. Produktua berak, sagardoak une gozoa bizi duen bezala, sagardoaren kulturari buruz gauza bera esan daiteke?

J. M. A. Hemen inguruan sagardo kultura dago. Orain txotx boladan

gehienbat Iparraldetik, Frantziatik eta Espainiatik parranda egitera datoz. Horregatik, guri erakutsi zigutena, aste egun batean sagardotegira sagardoa dastatzera joateko ohitura hori nola helarazi galdetzen diogu gure buruari. Hemen ere askotan, kultura hori ere ez dago guztiz barneratua. Niretzat hor dago erronka. Hori Errioxan ere pasa dute. Horregatik, museoaren bidez guk bizi dugun kultura hori transmititu nahi genuke.

N. Inguruko herri hauetan bada sagardoaren kultura. Baina gertuko herrietan ez da hain ezaguna museo hau?

J. M. A. Lehenengo sei hilabeteetan gu konturatu ginen, Sagardoetxea askorentzat beste sagardotegi bat bezala dela. Baina gure proiektua erabat kulturala da, oso lotua gastronomiarekin. Hemendik kanpo, proiektu kultural eta turistikoek segituan erakarri dituzte herritarrak. Eta hemen, batzuek ez dute garbi zer ote den. Aurten, herritik hasita, gai horretan sakondu nahi genuke.

N. Sagardoetxean aurkeztu da txotx denboraldia. Zuentzat ere horrelako ekitaldi sonatuak bertan ospatzeak, bultzatuko du gunea?

J. M. A. Gure gastuekin nahikoa dugulako, antolatutako ekitaldiak asko neurtu behar ditugu. Horrelako ekintzak Sagardoetxea bultzatzeko baliatzen ditugu.

N. Txotx denboraldi aurkezpenen jakinarazi zenez, aurtengo sagardoa on dator?

J. M. A. Batek baino gehiagok esan dit, iazkoa baino askoz hobea dela. Nahiz besteek bestelakorik esan. Etxe bakoitzak daki zer duen. Guk hemen probaketa batzuk egiten ditugu. Baina aurten, orokorrean, herritarrek produktu ona dastatu ahal izango dute.



JOXE MARI ALBERRO,
MUSEOKO ARDURADUNA.

Inguruko sagardotegien gida

Aginaga sagardotegia
943 366 710 (Aginaga)

Aialde Berri sagardotegia
943 365 031 (Santuenea)

Araeta sagardotegia (Zubieta)
943 362 049/ 943 366 604

Arratzain sagardotegia
943 366 663 (Arratzain bidea)

Astiazaran sagardotegia
943 361 229 (Zubieta)

Saizar sagardotegia
943 362 228 (Kalezar)

Urdaira sagardotegia
943 372 691 (Aginaga)

Datorren astean, zomorro festa

Herriko xomorro guztiei deialdia. Datorren otsailaren 2an, inauteriak ospatzeko hitzordua duzue 18:30etan frontoi atzean. Poteo koxkorra egin eta ondoren afaritara Aialde-Berrira. Gero, bakoitza bere erritmora buelta berriz kaxkora, parrandarekin jarraitzera. Inauteri egunak ekarriko du besterik ere. Hala nola, goizez gaztetxoei zuzendutako hainbat ekintza. NOAUA! Kultur Elkarteak eta Hitz Aho Guraso Elkarteak egun osoko plana antolatu dute, otsaileko lehen larunbaterako.

Xomorroz beteko zaigu herria datorren otsailaren 2an. Labe zomorroak, txingurriak, matxinsaltoak... herriko kaleetan denetik aurkitzeko prestatu beharra dugu. Baina lasai, ez dadila inor larritu. Intsektizida edo antzekerik hartu eta kalera atera baino lehen, lehenbizi begiratu egutegira. Orduan konturatuko gara, inoiz baino goizago, aurtengo inauteriak ospatzeko egunak ate joka ditugula jada.

TXINGURRIAK NAGUSI

“Zurrumurruek diotenez, txingurri asko irtengo da aurtengo Inauteri egunean”

Txingurriek, baiezkoa gonbidapenari

Hollywoodeko izarrak edota marrazki bizidunetako pertsonaia ezagunenak, ikus-entzuleen gustukoena bildu zituzten aurreko urteetako inauterietan. Munduan diren kultura ezberdinek ere bere tartea izan zuten orain urte batzuk. Antolatzaileek pare bat ideia zituzten buruan aurtengorako. Azkenean, urtero parte hartzen duten beste koadrilekin hitz egin ostean, zomorroen gaiak jaso ditu aldeko bozka gehien. “Ideia polita iruditzen zitzaigun, baina hasiera batean zaila. Gero, ordea, egin daitekeela kontura-



UDARREGI IKASTOLAKOAK OTSAILAREN 1EAN ATERAKO DIRA KALEJIRAN, BAINA INAUTERI JAIA OTSAILAREN 2AN LARUNBATEAN OSPATUKO DA.

tzen zara”, ziurtatu dute Eider Tapiak eta Agurne Alkortak.

Beraz, oraindik zertaz mozorrotu ez dakienak, ideien zerrendatik bat behintzat kendu dezake. Beti ere, originala izan nahi badu behintzat. Zurrumurruek argi baitiote: “txingurri asko irtengo da aurtengo”, gogoratu du Eiderrek.

Ideiarik ez? Begiratu liburuan

Askotan, errazena ez den lana dator orain. Gai horren barruan kokatu, zomorro mozorro konkretu batean pentsatu eta egun bateko jantzia egin beharra. Irudimena duenak abilago egingo ditu lanok. Baina oraindik gaiarekin bat etorriko den mozorroa aukeratu ez duen edota ideien beharrean denarentzat, hona hemen antolatzaileen gomendioa: “intsektuen liburua hartzea. Bertan milaka espezie ageri dira”, adierazi du Alkortak. Eider eta koadrilakoekin batera, hortxe dabilta azken urteetan bezala, lan bikoitza egiten; koadrilako mozorroak prestatzen eta aldi berean, inauteri eguneko guztia ondo lotzen.

Azterketa garaia

Aurtengo, deialdi berezia egin beharra dago ikasleei, azterketa garaian egokitu da eta mozorro festa. Ondorioz,

otsaileko lehen astebururako baten baino gehiagoren plan nagusia liburu artean pasatzea izango da. Haiek ere burua liburu artean altxa eta festara gerturatzeko gonbita egin nahi diete antolatzaileek. Baita, zergatik ez, ohi-turarik ez duten herritarrei ere. “Beti koadrila berdina izaten dira. Animatu dadila jende berria”, adierazi dute antolatzaileek.

Otsailak 2 larunbata

Inauteri Jaia

GOIZEAN

Tailerrak eta jokoak gaztetxoentzat, frontoian.

ARRATSALDEAN

18:30ean Xomorroen topaketa frontoi atzean. Ondoren, poteoa.

GAUEAN

21:30ean Aialde-Berrin afaria. Afalostean, parranda eta mozorro festaren jarraipena, tabernatan.

Antolatzaileak: NOAUA! elkarteak, Hitz Aho guraso elkarteak.

Babeslea: Usurbilgo Udala.

Goiz partean txikiak izango dira protagonistak

Inauteriak ez dira gaztetxoenez ere ahaztu. Hitz Aho guraso elkarteko kideen eskutik, goiz pasa ederra prestatu diete frontoian. Arratsaldean bezala, zomorrorik ez da faltako goizeko hamaiketatik aurrera. Mozorrotzeko aukeratu dituzten animaliak honakoak dira: liztor eta erleak, euliak, harrak eta amona mantangorriak. Etxetik mozorrotuta ager daiteke, baina halakorik egin ezin duenak, lasai egon dadila. Pilotalekuan aurkituko baitu itxuraz aldatzeko behar duen guztia.

Mozorrotzeko lau gai, lau animalia aukeratu dituzte; liztor eta erleak, euliak, harrak eta amona mantangorriak. Etxetik jada mozorro jantziekin hurbil daitezke gaztetxoak. Baina halakorik ez badute, lasai, horretarako prestatu baitituzte tailerrak pilotalekuan bertan. Jantziak egin, osagarriak prestatu eta aurpegia bertan margotu ahal izango da. Hitz gutxitan, inauteriak gune berean prestatu eta bizi ahal izango dira.

Usurbilgo Antzerki Tailerreko kideek ere mozorroren desfilearekin lotutako emanaldia prestatu dute eta otsailaren 2an eskainiko dute. Erakustaldiak geroa ere jarraituko du. Animalia espezieka banatuta eta dantzen bidez, liztor eta erleak, euliek, harrek eta amona mantangorriek euren itxura gainerakoena baino politagoa dela garbi uzteko aukera izango baitute. Hitz Ahotik deialdi zabala egin nahi dute: "Gazteak hasi jantziak eta aurkezpen edo dantzaren



OTSAILAREN 2AN LARUNBATA, GAZTETXOEN JOLASEAN ARITZEKO AUKERA ASKO IZANGO DITUZTE.

bat prestatzen, aukera izango duzue eta oholtza gainera igotzeko!". Egitarauan ikus daitekeen bezala, animalia talde bakoitzak bere dantza emanaldia eskaintzeko ordutegia zehaztua du.

Gerora, ezberdintasunak alde batera utzita, denak batera kalejiran irtengo dira. Eta gaztetxoek festa ororen artean, gehienetan falta ez diren buruhandiak ere agertuko dira.

Otsailak 2 larunbata, goizeko egitaraua

11:00 Zomorroz mozorrotutako bi pertsonaiek haurrei deialdia egingo diete bertara daitezen. Horrekin batera, plazan dauden guneen aurkezpena egingo dute.

Goizean zehar, mozorro, makillaje eta eskulan tailerrak.

11:15 Mozorroren desfilea (Santueneko antzerki tailerrarekin).

11:30 Lehen zomorro dantza: Liztor/erleak.

11:45 Bigarren zomorro dantza: euliak.

12:00 Hirugarren zomorro dantza: harrak.

12:15 Laugarren zomorro dantza: Amona mantangorriak.

12:30 Zomorroren kalejira erraldoia.

Jaia amaitzeko, zomorroren zapaltzaileak diren buruhandiak agertuko dira.

Inauterietako afaria, Aialde-Berrin

Duela bi urtetik arratsaldean kalez kale ibili ostean, afaltzeko sagardotegi batean biltzeko ohitura dute, ekimenean parte hartzen duten herritarrek. Aurten, otordua egiteko Aialde-Berri sagardotegia aukeratu dute. 35 sarrera eskuragai dira **Irratin** eta **Ardi Beltz garagardotegian**, 25 euroren truke.

Beraz, afarira joan nahi dutenek azkar mugitu beharko dute.

Urtarrilaren 31 baino lehen

Sarrera kopuru hori saldutakoan, ez baita bertara joateko modurik izango. Gogoratu, afaria otsailaren 2an. Sarrerak eskuratzeko azken eguna: urtarrilak 31.



IAZ, SAIZAR SAGARDOTEGIAN BILDU ZIREN "BRASILDARRAK".

Okindegietako salerosketak euskalduntzeko kanpaina aurkeztu da

Ogi barra, zopakoa, moldeko ogi zerealduna, txapata, flauta... Luzea da okindegi batera sartu eta bertan aurki dezakegun produktu zerrenda. Baina askotan erdarara jotzen dugu ogi bat edo beste eskatzerakoan, edo euskaraz nola esaten den asmatu ezinik ibiltzen gara. Egoera aldatzeko, saltoki hauetan egin ohi diren salerosketak euskalduntzeko alegia, Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeen eskutik kanpaina berri bat martxan jarri da.

Ekimena pasa den urtarrilaren 17an aurkeztu zuten Astigarragako Kultur Etxean. Bertan izan ziren, Astigarragako eta Lasarte-Oriako Euskara Batzordeetako Lehendakariak, Zorione Etxezarraga eta Ricardo Ortega hurrenez hurren. Baita azken herri horretako udaleko Euskara Batzordeko teknikari Marifer Gorostiza ere.

Euskara aipatutako denda hauetan normalizatu asmoz, hainbat material prestatu dute. Ogien izenak euskaraz jartzeko 26 txartel plastifikatu jarriko dituzte kanpainarekin bat egin duten saltokietan. Horietatik 25, dendaz denda ibili ostean bildutako euskal izenekin osatu dituzte. Beraz ogi izen bat daramaten txartelak dira horiek.

Baina produktu horren zerrenda luzea izanik, badira txartel horietatik kanpo

gelditzen den beste hainbat ogi mota ere. Ekimenaren bultzatzaileek horri ere irtenbidea aurkitu diote. Aparteko txartelak emango dizkiete dendariei.

Hain zuzen ere, okindegiak ogi izen bera produktu bat edo beste izendatzeko baliatzen dute. Saltoki hauetako batera hurbiltzen denak bertan esekita izango den kartela begiratu besterik ez du. Buruntzaldeko ordezkariak egindako lan horretan, ogien irudi eta euskal izendapenak ageri dira.

PARTEHARTZE HANDIA

Buruntzaldeko 90 bat saltokik bat egin dute martxan jarri den kanpainarekin. Usurbilen, guztira, hamahiru”

Aipatu behar da Agenda 21 ekimenarekin bat egin duela Buruntzaldeko martxan jarri berri duten kanpainak. Materiala osatzeko, paper birziklatua erabili dute, eta poltsak egiteko berriz, kotoia eta tinta ekologikoa.

Okindegientzat ekimen berria

Ez da merkataritzaren alorrean egiten den lehen kanpaina, 2002. urteaz geroztik ugari egin baitituzte. Gogoan hartu adibide gisa, duela gutxi bailarako fruta dendatan egin zena, edota iaz, arrande-



OGIEN EUSKAL IZENDAPENAK SUSTATZEKO KANPAINA IZANGO DA.

gietan burututakoa. Oraingoan, kanpaina okindegietara zabaldu nahi izan dute.

Bailarako herri guztiek parte hartu dute ekimenean, Andoaingoak izan ezik, Euskara Zerbitzuan izandako zenbait gorabehera tarteko, ekimenari ezin izan baitio eutsi. Edozein kasutan, aurrerago alor honetan eragiteko asmoa erakutsi dute.

13 saltoki parte hartzaile

80-90 bat saltokiek bat egin dute Buruntzaldeko martxan jarri duen kanpainarekin. Okindegi eta ogia saltzen duten dendan artean, Usurbilen guztira hamahiru.

ARITZ GORRITI

Ogia eramateko poltsak, opari

Saltzaileez bakarrik ez, bezeroez ere gogoratu dira kanpainako ardura-dunak. Ogia erosteko erosotasuna eskaini nahi diete erosleei. Hori dela eta, kanpainako okindegi parte hartzaileetan guztira 15.000 kotoizko poltsa banatuko dituzte erosleen artean. Hartara, bezeroek ogia euskaraz eskatzeko aitzakiarik ez dute izango. Karteletan bezala, poltsen gainaldean ere, ogien irudiekin batera

haien euskal izenak ageri baitira.

Ez da soilik bere lanean edota erosketetan egunero euskara darabilten saltzaile eta bezeroei zuzendutako ekimena. Erdaraz mintzatzen direnengana ere iritsi nahi dute Buruntzaldeko ordezkariak. Haien produktuen euskal izenak jendaurrean erakusgai jartzea, aipatu hizkuntza normalizatzeko aurrerapausotzat jotzen baitute ekimenaren eragileek.



POLTSA HAUEK OPARITUKO DITUZTE.

Otsailaren 1ean amaituko da Sahararen aldeko kanpaina

Kanpaina honen bitartez, premiazko janariak bidaliko zaizkie saharar errefuxiatuei: azukrea, dilistak, arroza, atuna oliotan eta garbitasun gaiak (konpresak). Guztia karabanan garraiatzeko bigarren eskuko kamioiak erostea aurreikusi da; azken hau euskal erakundeek egingako ekarpenei esker egingo da, batez ere, udalek emandako dirulaguntzei esker.

Usurbilen, honako saltokiek egin dute bat kanpainarekin: Dia, Aliprox, Aginagako Eiza, Aritzeta denda eta



Udarregi ikastola.

Janaria edo garbitasun gaiak bidaltzeko aukera eskaintzeaz aparte, diru ekarpenak egiteko kontu korrante bat ere zabaldu da. Hauxe kontu zenbakia: 3035 0080 94 0800054177

Logotipo berri bila dabil Alkartasuna Kooperatiba

Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba sortu zela 100 urte beteko dira aurtentzen. Ospakizun ekitaldiak antolatzeko gain, Alkartasunaren adierazgarri izateko logotipo berri bat nahi dute. Horretarako, lehiaketa jarri da martxan. Lanak otsailaren 15a baino lehen bidali behar dira.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak bere lana kooperatiba bertara eraman edo postontzi elektronikora bidali behar du otsailaren 15a baino lehen. Hauxe helbidea: alkartasuna@usurbil.com

Saritutako logotipoaren egileak, Alkartasuna kooperatiban bertan



KOOPERATIBA SORTU ZELA 100
URTE BETE DIRA AURTENTZEN.

edozein gai eskuratzeko 300 euroko bonoa jasoko du.

Informazio gehiago kooperatiban, aipatutako posta elektronikora idatziz edota 943 36 11 14 telefono zenbakira deituz.

Alcoholicos Anonimosen hitzaldia Lasarten

Hitzaldia antolatu du Alcoholicos Anonimos taldeak datorren urtarrilaren 31n iluntzeko 19:00etan, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean. "Alkoholismoa: arazoa edo misterioa" izenburupean, Alvaro Iruin psikiatrak, Alcoholicos Anonimos eta Al-Anon erakundeko kideek eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok parte hartuko dute. Hitzaldia bera, Lasarte-Orian talde berri bat osatzeko baliatu nahi dute antolatzaileek. Aurkezpen ekitaldi horren ostean, otsailetik aurrera, astearte eta ostegunero iluntzeko 20:00-21:30 artean, biltzeko asmoa dute Lasarte-Orian bertan: Kale Nagusia 22, Villa Maritxun.

Auzo elkarte osatzeko bilera Kalezarren

Kalezarren, auzo elkarte bat osatzeko asmoa dago. Baina haur, gazte eta helduen beharrak zeintzuk diren ezagutu eta horren arabera hartuko litzateke azken erabakia. Gazte zein helduei zuzendutako deialdi irekia da hau. Otsailaren 9an larunbata egingo da bilera Peña Pagolan. Goizeko 11:15ean hasi eta eta 13:00erako bukatzeko asmoarekin. Kalezarreko hainbat bizilagunen ekimenez antolatu da bilera.

URDAINTZI S.L.
eraikuntza

943 367 264
649 435 475
649 435 476

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Ikasketak eta benetako lana uztartuko ditu Lanbide Heziketak

Eusko Jaurlaritzak "Ikasi eta lan" esperientzia pilotua jarri du martxan. Era honetan, Lanbide Heziketako ikasleak ikasten dauden bitartean, lanaldi partzialeko kontratua izango dute industria enpresetan. Ordainean, hiru urtez guztira 7.250 euroko diru-laguntzak jasoko dituzte enpresa horiek. Ikasleek, gainera, lan munduan sartzeko erraztasun gehiago izango dituzte.

Oraingoz 75 ikasle daude esperientzia horretan murgilduta, EAEko Lanbide Heziketako lau zentrotan: Gasteizen, Santurtzin, Elgoibarren eta Usurbilen.

Juan Jose Loroño Lan eta Gizarte



USURBILGO LANBIDE ESKOLA
AITZINDARIA IZANGO DA BERRIZ ERE.

Segurantzaren sailburuordeak eta Iñaki Mujika Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzakoak aurkeztu zuten Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloetako antolakuntza eredu berri horren edukia.

Datozen ikasturteetan ekimen hori langile eskaria duten beste sektore batzuetara hedatzeko asmoa dute.

Pagoetara, Udarregi ikastolako mendi-taldearekin

Igande honetan, urtarrilak 27, Pagoetara abiatuko dira Udarregi ikastolako mendi-taldekoak. Hauxe izango da ikasturteko hirugarren mendi irteera.

Goizeko 9:00etan abiatuko dira Oiardo kiroldegitik. Ez da beharrezkoa izena ematea, edozein joan daiteke. Nahikoa da kiroldegira azaltzea. Hori bai, bakoitzak arduratu beharko du berarentzako kotxea izateaz. Eguerdirako bueltan izango dira. Xehetasun gehiago: udarregi.com

2006ko tituluak

Lasarteko Institutuan dira

Lasarteko Batxiler Institututik jakinarazi digutenez, 2006ko batxiler tituluak iritsi dira. Ikasleak, beraz, pasa daitezke tituluak jasotzera.

Otsailean, arratsaldean irekiko da KzGunea

Urtarrila amaitu bitartean, KzGunea arratsaldean irekiko da, honako ordutegiarekin: 16:00-20:00. Baina otsailean, goizeko ordutegiarekin irekiko dute: 9:00-13:00.

INTERNET IKASTAROA

Otsailak 4 - otsailak 15 (gaztelaraz)
Astelehenetik ostiralera, 9:00-11:00.

MINTEGIAK

Sinadura elektronikoa (euskaraz)
Otsailak 5 asteartea, 11:00-12:00

Itzultzaileak (gaztelaraz)

Otsailak 5 asteartea, 12:00-13:00

Kontsumitzailea sarean (gaztelaraz)

Otsailak 14 osteguna, 11:00-13:00

IT TXARTELA AZTERKETA

Otsailak 7 osteguna, 11:00-13:00
Otsailak 12 asteartea, 11:00-13:00

KzGunea, Kale nagusia 37
Telefono zenbakia: 943 36 14 12
tutor.usurbil@kzgunea.net
www.kzgunea.net

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3 • 943 361 106

Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA

**943 365 095
609 068 111**

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Xukin Andoni Errazkin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

☎ 663 08 76 71 • USURBIL

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

2. Erregional mailako taldea, liga amaitzear

Usurbil Futbol Taldeko 2. Erregional mailako taldeak Liga txapelketako azken partida jokatu du asteburu honetan Harane futbol zelaian. Igoera fasea jokatzeke txartelik ez dute lortuko, baina azken bi jardunaldietan lortutako garai-penpen ondoren 10 taldeko multzoan 6. postua eskuratu dezakete.

Herriko futbol taldeak bere historian lehen aldiz erregional mailako bi talde ditu aurten. Aurrendenboraldian jokalaria ugari bildu zirela ikusita, 2. Erregional mailako taldea atera zuten eta dagoeneko denboraldiaren lehen zatia amaitzera doaz. Igandean arratsaldeko 16.00etan jokatu dute Haranen ligako azken neurketa Martutene B taldearen aurka, eta 22 punturekin amaitu dezakete hasierako txapelketa hau.

Urte berria ondo hasi ez bazuten ere, 5-1 galdu zuten Kostkas taldearen aurka, azken bi norgehiagokak irabazita 6. postua eskuratzeko moduan dira usurbildarrek. Pasa den asteburuan lortu zuten etxetik kanpoko lehen garaipena Herrera futbol zelaian Axular taldea 0-2 mendean hartuta, eta talde honek herriko taldearen puntu kopuru bera badu ere, gol diferentzia kontuan hartuta aurretik dira azken neurketaren faltan.

Hala ere, Kopa txapelketa jokatu dute herriko jokalaria gazteek. Lehen bost sailkatuek lortuko dute igoera fasea jokatzeke txartela eta beste guztiek



EZ DUTE IGOERA FASEA JOKATZEKO TXARTELA ESKURATU.

Kopa txapelketa irabaztea izango dute helburu datozen asteetan. Herriko taldeak, gainera, txapelketa polita egiteko aukera badu, bere multzoan azken postuak eskuratu dituzten taldeekin lehian puntu dezente atera baititu ligan.

Neskak, larunbat arratsaldez

Emakumezkoen taldeak ere etxeko neurketa izango du asteburu honetan. Larunbatean arratsaldeko 16.00etan hasita, Luberriren aurka jokatu dute Harane futbol zelaian. Partida zaila dute oraingo honetan herriko neskek. Kopa txapelketan beraien multzoan lidertzan dagoen talde donostiarra izango dute aurrez aurre. Hala ere, Kopako lehen garaipena lortzea izango dute helburu usurbildarrek. Orain arte jokatuak 5

neurketak galdu dituzte, nahiz eta Lazkaoren aurkako etxeko azken partidaren puntu bat merezi izan zuten.

Kadeteak, Idiazabalen

Beste bi taldeek etxetik kanpo jokatu dute. 2008an jokatuak bi partidak galdu ondoren jaitsiera postuetatik 3 puntura dago momentu honetan 1. Erregional mailako taldea eta larunbatean arratsaldeko 15.30etan neurketa zaila izango du Tolosan. 4. postuan kokatuta dagoen bertako taldea izango dute aurrez aurre Usabalgo futbol zelaian. 1. Kadete mailako taldeak, berriz, Idiazabalen jokatu du larunbat goizean Kopa txapelketako 3. jardunaldian.

JOSU ARANBERRI

Euskal Ligako partidak Oiardon

Usurbil Kirol Elkarteko emakumezkoen bi taldeek Euskal ligako 3. jardunaldia jokatu dute asteburu honetan Oiardo kiroldegian. Lehen bi neurketak gipuzkoarren aurka jokatu ondoren, oraingo honetan bizkaitarrak izango dira Usurbil aldera etorriko direnak. Basauriko bi eskubaloit taldeen aurka neurtuko dituzte indarrak. Kadete mailako taldea lehen puntuak eskuratzen saiatuko da. Lehen bi partidetan irabazteko aukerak izan zituzten, baina garaipenak ihes egin zien, eta asteburu honetako une aproposa izango da sailkape-

nean gora egiten hasteko. Jubenil mailako taldeak, berriz, garaipena eskuratu behar du lehen postuetan mantendu ahal izateko, pasa den igandean galdu egin baitzuten Zarautzen.

Beste partida bat ere jokatu da herriko kiroldegian. Kadete mailako mutilen taldeak Irungo Gaztiaken aurka jokatu du bertan. Herriko jokalaria gazteak txapelketa bikaina burutzen ari dira. Lehen itzulian partida bakarria galdu dute, gol bakar batengatik gainera, eta beste neurketa guztietan jokoan izan diren bi puntuak eskuratu dituzte.

Larunbat honetan, Espainiako Judo Txapelketa

Usurbil Judo Taldeko kideak Madrilen izango dira larunbat honetan. Senior mailako Espainiako txapelketa izango da bertan eta dominaren bat eskuratzeko asmoarekin doa herriko judo taldea. Nerea Sanz, Sara Quijano, Maria Jose Sardón, Andoni Aizpurua, Ibai Peña. Aitzol Arrozpide, Xabier Urkizu, Egoitz Mora, Iker Lizarribar eta Mikel Ponga judokak izango dira txapelketa honetako protagonistak.

Agenda !

Urtarrilak 24, osteguna

- Babes ofizialeko etxebizitzaren inguruko zerrendari alegazioak aurkezteko azken eguna.

Urtarrilak 25, ostirala

- Santa Agedako entsegua Zubietako Eskola Txikian. 19:00etan.
- "Ogia eta arrosak" filma, 22:30ean Sutegin. Zuzendaria: Ken Loach. Sarrera, egunean bertan 2 euro.

Urtarrilak 29, asteartea

- 18:00etan, ohiko udalbatza plenoa.

Urtarrilak 30, asteazkena

- Kultura Aholku Batzordea, 19:00etan udaletxean.

Otsailak 1, ostirala

- Inauterietako kalejirak Udarregi ikastolaren eskutik. Goizeko 10:30etik 11:25era. LH 4, 5 eta 6 batetik; LH 1, 2 eta 3 bestetik. Gero, denek bat egingo dute kiroldegian. Eguraldiak lagunduko ez balu, kiroldegian egingo litzateke kalejira osoa.

Otsailak 2, larunbata

- Inauterietako Jaia NOAUA! eta Hitz-Ahoren eskurik. 11:00etatik aurrera, gazte-txoentzat mozorro festa. 12:30ean mozorro kalejira herrian barrena. 18:30ean, Helduen Xomorro Topaketa frontoian. Gero poteoa, afaria, parranda...

Yoga, masaje eta sabel dantza ikastaroak

- Yoga eta masaje ikastaroetan oraindik bada apuntatzeko tokia.

- Sabel dantzako bigarren taldea osatzeko, aldiz, hiru pertsona falta dira. Talde hau astelehenetan bildu ohi da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Informazio gehiago: 615 006 535 (Ana), Eina-Guraso Eskola.

Ostiralean Sutegin,

"Ogia eta arrosak" filma euskaraz

Euskarazko beste film bat ikus-tereko aukera izango dugu aste honetan. Ken Loach zinegileak 1998an zuzendu zuen "Ogia eta arrosak" pelikula, hain zuzen. Amerikako Estatu Batuetan etorkinek bizi duten egoera islatzen du film honek. Maya eta Rosa, bi ahizpa mexikar, garbitzaileak dira Los Angeles (AEB) erdialdeko bulego-erakin batean. Ekintzaile amerikar sutsua den Sam ezagutu eta kanpaina bat hasiko dute ugazaben aurka. Baina borroka horrek beren eguneroko ogia kolokan jarri, eta familiei kaltea eta erbestearen arriskua dakarkie.

Helduentzako pelikula honek klase-borrokaz, sindikalismoaz baliatzen da, munduan gizartea eta lan-egoera aldatzen ari direla islatzeko.

Pilar Padilla, Adrien Brody,



ADRIEN BRODY DA PELIKULAKO AKTOREETAKO BAT.

Elpidia Carrillo, George Lopez, eta Alonso Chavez dira film honetako aktore nagusiak.

NOIZ: Urtarrilak 25 ostirala.

NON: Sutegin, gaueko 22:30ean.

SARRERA: egunean bertan, 2 euro.

2008 urte osoan, gaueko goardiako farmazia Hernaniko Correa izango da

Iaz, Hernaniko Etxebeste farmaziak eskaintzen zuen gaueko zerbitzua gure eskualdean. 2008 urte osoan, ordea, Correa farmazia izango da lan hori egingo duena. Hernaniko Perkaiztegi Kalea, 8 zenbakian aurkitzen da Correa farmazia (telefonoa 943 33 60 22).

Gaueko goardiako zerbitzua 22:00etan hasten da eta hurrengo goizeko 9:00ak arte irauten du.

Gainontzean, eguneko goardiako

zerbitzuak orain arte bezala jarraituko du, era errotatiboan, goizeko 9:00etatik 22:00etara (aldizkari honetan, 16. orrialdean jartzen dugu egunez eguneko goardiako farmazien agenda; urte osokoa, noaua.com webgunean).

Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak txandaka eskaintzen dute eguneko goardiako zerbitzua. Baina Usurbilgoek, larunbatetan denean, eguerdiko 13:00ak arte eskaintzen dute zerbitzu hori.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 • ASTEASU

☎ 943 69 68 52 • 620 800 186

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ETXEBIZITZA

- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Gela bat alokatzen da, pisu konpartituan. Kontaktuan jartzeko: 635 208 551.
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta (318.000 euro). 696 693 710.
- Gela bat alokatzen da gizonezko langile bati. 250 euro/hilabetean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin eta arropen garbiketara. 687348223.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro . Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 265.000 euro. 678084020.
- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- 3 logelatako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 943 36 02 45 / 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Wolkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu

- berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Oso ondo zainduta. Extra asko. Ruben. Tfno. 609408401.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska euskaldun (ahal bada) baten bila gabiltza ume bat zaintzeko astean bi goizetan eta zenbait arratsaldetan. 635715142.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako

- bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Erregeek telebista modernoa ekarri badizue eta zaharra botatzeko asmorik badaukazu, neurekin kontaktuan jarri: bila joango nintzake: 675 71 72 67. Diru pixka bat ordaintzeko prest nago ere.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. Aurkitu baduzu, deitu: 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzako beltz batekin. Aurkitu badituzu esker-tuko dugu deitza: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitoxa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net




Zorionak Jokin eta Korta!

Gure ziklistak eta futbolariak 24na urte bete zituzten, urtarrilaren 17an eta 23an. Guk kirolik ez, baño ospatzeko gustoa hartuko dizkiyau zuekin pote pare bat. Ondo pasa! Koadrilaren partetik.



HERIOTZAK

Joxe Azkonbieta Yerobi
Urtarrilaren 17an hil zen 86
urterekin. Kaleberri, Usurbil.



JAIOTZAK

Eñaut Kamino Zinkunegi, urtarrilaren 8an.
Iñigo Martin Recio, urtarrilaren 9an.
Beñat Lete Brit, urtarrilaren 16an.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 • 659602789

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
Kamiseten inprimaketa
OSU
943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USURBIL

Otsailak 2
larunbata

Goizean, haurrak nagusi

11:00etan, **MOZORRO, XOMORRO** festan
mozorro, makilaje eta eskulan tailerrak
XOMORROEKIN KALEJIRA ERRLDOIA
eta **SORPRESA** ugari.

Arratsaldean, kalejira

18:30ean, koadrila guztien elkartzea
eta kalejira frontoi atzetik,
giro ederrean.

Gauetz, parranda

21:30ean, **AFARIA**
AIALDE BERRI sagardotegian.
Txartelak **ARDI BELTZ**
eta **IRRATI**n salgai.



Babeslea:

Noaua
www.noaua.com

INAUTERIAK'08
otsailak 2 larunbata
gaia XOMORROK

Antolatzailea: Hitz-aho.

TXOTX!!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenena

LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta ingande
eguerdian IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserría **Ereñotzu - Hemani**
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR

Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN

DOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.



info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baserría • Telf: 943 36 66 63

☎ 943 36 12 29

iruvin

sagardotegia



Iruvin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

Aginaga

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik



Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com